



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: AKORDEOIA

2023-02-25

Nori zuzenduak?

Graduko **Akordeoi interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara irakasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 17an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joaten badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Akordeoi interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ALBERDI, Iñaki

Miren Iñarga, Marko Sevarlic eta Javier Alberdik parte hartuko dute, Akordeoi gelako irakasleak hirurak ere.

10:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

11:00-12:30 Musikeneko ikasleei eskola, eskolen garapenaren erakusgai

12:30-14:00 Musikeneko Akordeoi ikasleen eskutik emanaldia

15:30-16:00 Musikeneko ikasleekin topaketa

16.00-19:30 Iñaki Alberdiren eskolak jardunaldietan horretarako izena eman duten ikasleekin

Akordeoi jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifikoko gehiago jasotzeko jarri harremanetan José Antonio Candaudap Teklatu eta Kantu Departamentu buruarekin:
dpto.tecladocanto@musikene.net